

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Luis Alberto Aranberri Mendizabal  
Amatiño*

*Eibar, Gipuzkoa  
(1945)*

Aurkibidea



## Biografia



Luis Alberto Aranberri "Amatiño" Eibarko Bidebarrieta kalean jaio zen 1945. urtean. Eibarko eskola nazionalen hasi zituen ikasketak eta Isasi kaleko Corazonisten ikastetxean jarraitu. Geroago, hiru urtez, Bilbon eta Oronozen jarraitu zituen ikasketak. 18 urterekin Eibarrera itzuli eta bere aitaren lantegian hasi zen lanean; bertan aritu zen 13 urte inguruan. Tarte horretan, baina, bere benetako zaletasuna ondo errotuta zuen eta lantegiko lanarekin batera kazetaritzan hasi zen, Zeruko Argia aldizkarian. Horrekin batera, Eibarko kulturaleko kide egin zen eta 60. hamarkadako Eibarko mugimendu euskaltzalean zeresan zuzena izan zuen. 1976an hasi eta zazpi urtez Deia egunkarian aritu zen Euskara eta Kultura sailean lanean. 80. hamarkadatik aurrera ETBn zuzendari kargua izan zuen bi aldiz eta kazetari lanetan ere aritu zen bertan. Eusko Jaurlaritzako hainbat sailetako idazkari zein zuzendari izan da, baita komunikazio arduradun ere. Urte luzez, artikuluak idazten aritu da komunikabide askotan.

## Zintak

### EIB-074

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2008-05-26
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Sarasua Aranberri, Asier
- **Emalea:** Sarasua Aranberri, Asier

### EIB-075

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2008-05-26

- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne
- **Emalea:** Sarasua Aranberri, Asier

## EIB-076

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2008-05-26
- **Iraupena:** 50 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne
- **Emalea:** Sarasua Aranberri, Asier

## EIB-756

- **Proiektua:** Eibarko Euskal Jaiak 50 urte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2015-05-06
- **Iraupena:** 38 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## Pasarteak

### 1. Amatiño eta bere izenak (Luisal, Amatiño...)

- **Erref:** EIB-074/001
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

#### Laburpena:

Amatiñok bere burua aurkezten du eta bere izenaren inguruko argibideak ematen ditu. Batzuentzat Luis, beste batzuentzat Alberto, lagunentzat Luisal, idazten hasi zenean Amatiño eta Miel Otxin... Hainbat izen erabili izan ditu.

### 2. Bidebarrietan jaio baina Untzagan bizi izan zuen ume garaia, Mototxeneko etxean

- **Erref:** EIB-074/002
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:01:57. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Natura » Meteorologia

#### Laburpena:

Bidebarrieta kalean jaio zen, Muñoatarren etxean (Hotela izandako eraikinean). Dena dela, 3-4 urte zituela Mototxeneko etxera joan ziren, Untzagara (Guridi taberna gaineko etxera). Horixe izan zen bere umezaroko etxea, ondo gogoratzen du.

### **3. Ume garaiko sukaldea: arropa lehortzeko tramankulua eta ekonomika**

- **Erref:** EIB-074/003
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

#### **Laburpena:**

Bere etxeko sukaldea nolakoa zen. Amak arropa lehortzeko tramankulu bat izan zuen. Sua, berriz, ekonomika izan zuten 14-15 urtera arte, gutxienez.

### **4. Ciriaco Mendizabal, bere aitxitxa. Amortiguadores Record sortu zuen baserritarra**

- **Erref:** EIB-074/004
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:10:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

#### **Laburpena:**

Bere aitxitxa, Ciriaco Mendizabal, Bergarakoa zen, Amatiño baserrikoa. Egunero baserritik jaitsi eta oinez joaten zen lanera, Eibarrera. Gerora, Eibarren geratu zen bizi izaten. Baserritarra izan arren, hainbat enpresa jarri zituen. Lehenengoa, gaseosa-fabrika izan zen. Ondoren, amortiguadore lantegia ipini zuen (Industrias Mendizabal). Oso gizon langilea izan zen, oso gutxi ikasitakoa baina argia eta langilea.

### **5. Etxea lantegi gainean, Aldatze kalean**

- **Erref:** EIB-074/005
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:11:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

#### **Laburpena:**

Ciriaco Mendizabal, bere aitxitxak, lantegia jarri zuen Aldatze kalean, eta gainean etxea eraiki zuen familia osoarentzat. Baserritarra zenez, etxe gainean ia-ia baserri osoa jarri zuen: oilategia, baratzea, fruitarbolak, txakurrak, katuak... Luis Alberto bera ere hantxe bizi izan zen zenbait urtez.

### **6. Aitaren eraginez, euskara zen nagusi etxean**

- **Erref:** EIB-074/007
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:15:00

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Bere aitxita Ciriaco Mendizabalek lantegia sortu zuen Aldatze kalean eta gainean 3 pisuko etxea sortu zuen, 3 seme-alabendako. Amatiño eta bere familia lehenengo pisuan bizi izan ziren, aitxita-amamarekin. Goiko pisuetan ez zen euskararik ez ikasi eta ez egin. Lehenengo pisuan, ostera, euskaraz egiten zuten. Batez ere, Amatiñoren aitaren eraginari esker, erabat euskaltzalea baitzen. Lehengusuek erdaldun hutsak izan ziren (horixe zen arruntena Eibarren), baina Amatiñoren etxean euskaraz egiten zuten.

## 7. Gerra ostean oso giro erdalduna Eibarren

- **Erref:** EIB-074/008
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:15:00. **Bukatu:** 00:17:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Bere gaztaroko giroa erabat erdalduna zen Eibarren. 18 urte izan zituen arte, esate baterako, ez zuen jakin bere ikaskideen artean zein ote zen euskalduna. Ermuko mutil batekin bakarrik egiten zuen euskaraz. Nagusitan jakin zuen, jakin askok zekitela euskaraz, baina egin inork ere ez. Eta mutilen artean zeozer; baina neska-mutilen artean, sekula ere ez.

## 8. Aldatze kaleko etxea, baserri kutsuarekin eraikia

- **Erref:** EIB-074/009
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:17:10. **Bukatu:** 00:20:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

**Laburpena:**

Aldatzeko etxea oso ederra zen. Aitxitxak berak egin zuen, bere modura. Umetan bizi izateko oso egokia zen. Mendia bertan zuen, frontoi txiki bat ere bazuen, urtegi txiki bat ere bai (tailerrerako erabiltzen zena),... eta umeentzat oso leku erakargarria zen. Aitxitxak ortua ere bazuen (porruak, tomatea...), oilategia... Aitxitxa baserritarra zen eta lantegi gainean ia-ia baserria sortu zuen. Janariari, gainera, garrantzi berezia ematen zion (sasoi hartan ez zen batere arrunta).

## 9. Aitxita Ciriaco ukendua egiten zuen etxean

- **Erref:** EIB-074/010
- **Iraupena:** 0:05:20. **Hasi:** 00:20:05. **Bukatu:** 00:25:25

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna
- Natura » Meteorologia

**Laburpena:**

Aitxitxa baserritarra zuen eta ukendu eta sendabelarrak asko erabiltzen zituen. Pasmobelarrarekin oso ukendu ona egiten zuen eta auzotarrei banatzen zien. Beheko sua ere bazuten etxean (baserrikoaren antzekoa) eta su gainean Kefir estiloko onddo moduko bat izaten zuten. Onddo horrek sortzen zuen likidoa ere hartzen zuen aitxitxak. Lotara joan aurretik, eukalipto jartzen zuen ur beroarekin, bere lurrunarekin lo egiteko. Enpresa gizona zen, baina baserritar petoa zen. Bere afizio bakarra bere emaztea, familia eta etxea izan ziren. Gizon langilea eta on hutsa.

## **10. Ciriaco eta Segunda, aitxitxa-amamak, Bergara-Antzuolatik Eibarrera etorriak**

- **Erref:** EIB-074/011
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:25:25. **Bukatu:** 00:27:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Ciriaco Mendizabal, bere aitxitxa, Bergaran jaio zen, Amatiño baserrian (1888. urtean). Gazte-gazte etorri zen Eibarrera eta Segunda Lete ezagutu zuen. Segunda Lete, amama, Antzuolan jaiotakoa zen. Gaztetan Donostiara bidali zuten erdara ikastera eta harrezkero garrantzi berezia ematen zion erdaraz jakiteari.

## **11. Abuztuan Donostiara urtero**

- **Erref:** EIB-074/013
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:27:50. **Bukatu:** 00:29:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Oporrak

**Laburpena:**

Aitxitxak eta amamak astebete igarotzen zuten urtero Donostian, abuztuan, Iriondo pentsioan. Abuztuaren 8an aitxitxaren urtebetetzea zen eta familia guztia bertara joaten zen: Igeldora joan, hondartzara... egun berezia izaten zen.

## **12. Familia euskalduna izan arren, osaba-izebek erdaraz hitz egiten zuten**

- **Erref:** EIB-074/014
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:29:07. **Bukatu:** 00:30:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Bere amamaren izena Segunda Lete zen, Olazabal baserrikoa, antzuolarra. Aitxixa-amamak baserriarrak eta euskaldunak izan arren, 3 seme-alabetatik bakarrak egiten zuen euskaraz etxean, gazteenak, Amatiñoren amak, alegia (senarraren eraginarengatik).

**13. Aitaren familian, 18 anai-arreba**

- **Erref:** EIB-074/015
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:30:20. **Bukatu:** 00:31:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Aitaren aldeko beste aitxixa-amamak ez zituen ezagutu, bera jaio ordurako hilda baitzeuden. Beste belaunaldi batekoak ziren. Izan ere, 18 seme-alaba izan zituzten eta Amatiñoren aita gazteena izan zen. Horregatik, Amatiño jaio orduko, aitxixa-amamak hilda zeuden. Bere izeba bat, Venancia, izan zen amamaren lekua hartu zuena.

**14. Argentinako senideak euskaldunak eta Eibarkoak erdaldunak**

- **Erref:** EIB-074/016
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:31:30. **Bukatu:** 00:34:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Aranberritarren artean ere, Amatiñoren osaba eta izeben etxeetan, gehienbat erdaraz egiten zuten, ez ziren euskaltzaleak. 1960. urte inguruan, bere lehengusina bat (Maritxu Aranberri) Argentinatik itzuli zen Eibarrera (gerran ihes egin ondoren). Han jaiotako seme-alabak euskaldunak ziren, eta Eibarren jaiotako lehengusuak, ostera, ez.

**15. Aita, Luis Aranberri; 18. semea izatearen gorabeherak**

- **Erref:** EIB-074/017
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:34:30. **Bukatu:** 00:38:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

**Laburpena:**

Amatiñoren aita, Luis "Koldo" Aranberri, erradikala zen euskara kontuetan. Hizkuntza kontuetan probokatzaile hutsa zen. Aita Elgoibarko Andikao baserrikoa zuen (eta ama Mallabikoa). 18 anai-arreba izan ziren eta Koldo denetan gazteena. Umetan seminariora bidali zuten eta gero Argentinara joan zen lanera, 1925 inguruan, beste pare bat anairekin.

**16. Margola tindategiaren sorrera**

- **Erref:** EIB-074/018
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:38:35. **Bukatu:** 00:42:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

**Laburpena:**

<p>Bere aita, Luis Aranberri, Argentinan egon zen pare bat urtez, eta handik itzultzean tindategia jarri zuen. Garai hartarako oso lanbide bereziak egin zituen (armaginaren semea izan arren): dependiente Argentinako denda batean, kosmetiko fabrika bat ere jarri zuen, eta azkenean tindategia izan zuen, Tintorer&iacute;a Margola. Tindategia anaiak sortu zuen, Gumer Aranberrik, gerra aurrean, baina gutxira Koldok hartu zuen tindategiaren ardura. Tindategiaren izenean (Margola) eta logotipoan (berde-gorri-zuria) nabarmen erakutsi zuen bere jarrera euskaltzale eta abertzalea.</p>

**17. Eibarko Margola tindategia, Espainiako handiena**

- **Erref:** EIB-074/019
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:42:50. **Bukatu:** 00:46:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

**Laburpena:**

<p>Margola tindategia Bista Alegre kalean zegoen. Gerra aurrean eraikitakoa zen (1950 urte ingurura arte horrela jarraitu zuen). Sarrera Urki aldetik zen, gaur egun Mutiola kalea dagoen ingurutik. Urteak igaro ahala, handitzen joan zen. Aita bakar-bakarrik hasi zen lanean, baina urteekin Espainiako tindategi handiena bilakatu zen. 70 langile izatera iritsi zen. Izan ere, horixe izan zen tindategiaren galbidea; handiegia zen eta 1980. hamarkadako krisialdiak harrapatu zuen.</p>

**18. Tindategiko lanak egiteko, isocarroa**

- **Erref:** EIB-074/020
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:46:45. **Bukatu:** 00:47:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai



**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

**Laburpena:**

Tindategiak "servicio a domicilio" ere bazuen. Isocarroa zen, 3 gurpildun ibilgailua, eta etxerik etxe ibiltzen zen arropa zikina jaso eta garbia banatzen. Amatiño ere sarri ibiltzen zen isocarroan, askotan ezkutuan.

**19. Arropa tindatzearen garrantzia**

- **Erref:** EIB-074/021
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:47:30. **Bukatu:** 00:50:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

**Laburpena:**

Tindategian esku-lan handia zegoen. Amatiñoren ezagutu zuenerako nahiko mekanizatuta zegoen, baina lehenago ez. Eta tindatze-prozesua beti izan zen oso artizanala. Garai hartan arropa tindatzea oso lan garrantzitsua zen; arropa asko tindatzen zen. Horrelaxe ezagutu ziren, esate baterako, Amatiñoren gurasoak. Aita tindategian lanean zegoela, 13 urte inguruko neskatala sartu zen lantegira eta aitak esan ei zion, "zer? aittan abriguaz zuri trajia ein bihar detsue, ala?". Lehen hori oso arrunta zen. Oihalak askoz hobeak ziren, material ona, kalitatezkoa... arropak asko irauten zuen eta konpondu/tindatu egiten zen.

**Transkripzioa**

- Bueno, neuk be horrela ikasi najuan gero, e? Nik ikasi najuan garbitzen, tintatzen ta plantxatzen. Nik e...
- Ta berak be dana eitten zeban?
- Berak be dana eitten zeban, ta ez bakarrik... Gaiñera, maixua zuan gaiñera: hau horrela in bihar da, hori ez daok ondo hori, hori eztakit zer... Eta, tira, nik ezautu neban garbittasun kontua nahiko -zelan esango neuke nik- mekanizauta jeuan, baina tintatzia, tintatzia beti izan zuan oso, zera... eskulana. Ze azken [batean] oso prozesu kimikua zuan: irakin, horrelako tenperaturan, horrelako tintia, ta horrelako proporziuan. Ta gero jakin bihar zan koloriak aldatz... nahasten, ba, horrelako kolore bat hartzeko. Ta etortzen jatzun klientia ta esaten zetsun: nik berde hau nahi dot, ta berde hori etara egiten zan; hau da, ba... ta, gaiñera, koloria, hik ondo dakian bezela, koloria lehorra izan ala edozein, hik daukan frakia edo nikixa, horri ur-tanta bat jausten bajako, koloria aldatu eitten dok. Orduan hik jakin bihar dok ze kolore hartu bihar daben sikatzen danian! Ze klientiak sikatuta ikusiko jok! Orduan, badao sistema bat oso kuriosua dana ta funzionatzen jok, da e... erropia holan busti-busti inda daola, ipintzen da mahai gaiñian, joten jako holako zera... eskukada zera... ukabilkada bat, ura lehertu... kendu eitten jok eta orduan koloria ikusten dok. Ta, karo, segundu bat dok e, pla! jo, ta, ez bazan illunegixa ero, ba, berriz beste koloria... Ta zuan... oso eskulan haundixa zuan.
- Sasoi haretan, gaiñera, tintatziak, oin tintau ez da ezer tintatzen, baiña

lehen erroa zaharrak eta holako gauzak asko tintatzen ziran, ez?  
- Holaxe ezautu juen alkar nere gurasuak. Hau da, nere aitta tintorerua zuan, ta dendan zeuala, zera, erroa hartzen, etorri jakon neskatilla bat bera baiño 13 urte gaztiaua. Ba berak eukiko zittuan orduan 27 urte edo, ta etorri jakon 14 urteko neskatua. Ta orduantxen alkar ezautu ta alkar gustau, itxura danez. Eta, gaiñera, amak ez zekan ahazteko, ze itxura danez esan zetsan: "ze? hau ze... -ekarri zeban tintatzeko, ta- zer? Aittan abriguaz zuri trajia in bihar detsue, ala?" Ta, jakiña, bestiari ez jakon bape gustau.

- Min.

- Lotsatu ein zan. Baiña hori orduan normala zan; batek telak haundixauak edo helduauak zittuan, senduauak zittuan, kalidade [...], gehixao irauten juen, lania zuan... Ta orain, oin, ba, produktuak dittuk kendu-ipurikauak. Orduan lehen erroiak irauten itten juan, ta itten zan lehelengo hainbat urte irauten; gero hareaz, askatu eta alabiaz edo alabiarentzat edo semiarentzat beste pieza bat egin; eta gero koloria galdutakuan, tintau. Orduan erroiak irauten itten juan. Oin, oster... ez, ez... oin e...

- Ta tintorerixan gehixau, tintau eitten zan gehixau edo garbittu be bai? Ze garbitzia...

## 20. "Sikuan" garbitzea zer den (ura beharrean, kimikagaiak erabiliz)

- **Erref:** EIB-074/022
- **Iraupena:** 0:04:46. **Hasi:** 00:50:50. **Bukatu:** 00:55:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

### Laburpena:

Tindatzeaz gainera, garbitu ere egiten zen arropa. Lehengo arropa desberdina zen (kotoizko asko), etxeetan ez zegoen labardaririk, uretan garbitu ezin daitekeen arropa... Horregatik, diru gutxiago egon arren, lehen arropa asko eramaten zen tindategietara. Batez ere, uretan garbitu ezin zitekeena, "lehorrean" garbitzen dena, petrolioaren eratorriak diren produktuekin. Disolbenteak erabiltzen ziren arropa garbitzeko. Lehen jende guzti-guztiak zituen artilezko berokiak edo gabardinak, eta tindategietan garbitu behar izaten ziren, etxean ezin ziren garbitu. Urtaro aldaketa iristen zenean, milaka-milaka gabardina biltzen ziren Margolan. Mendikadak. Udan, berriz, milrayas frakak eta udako arropak, eta abar.

## 21. Lutoaren eraginez, arropa asko tindatzen zen

- **Erref:** EIB-074/023
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:55:36. **Bukatu:** 00:56:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

**Laburpena:**

Lutoa ere oso garrantzitsua zen tindategietan. Familiakoren bat hiltzen zenean, senide guztiek arropa tindatu egiten zuten. Askotan, etxe batean norbait hiltzorian bazegoen, Margolara joaten ziren abixatzera, senidea hil orduko arropa guztia beltz tindatu ahal izateko.

**22. Familiaren tindategian lanean 16 urtez**

- **Erref:** EIB-074/024
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:56:53. **Bukatu:** 00:58:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

**Laburpena:**

Amatiñok 15-16 urtez egin zuen lan aitaren lantegian, Margola tindategian. 18 urte bete berri hasi zen lanean eta 34 urtera arte, gutxi gorabehera (1979. urtera arte). Ofizioa ikastera ere joan zen kanpora (plantxatzen ikastera, eta abar), baina batez ere kudeaketa eta diru-kontuetaz arduratu zen.

**23. Margolak 17 denda Euskal Herri osoan**

- **Erref:** EIB-074/025
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:58:40. **Bukatu:** 01:00:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

**Laburpena:**

Tindategiko beste lanetako bat "arropa ateratzea" zen. Hau da, dendara sartu den arropa ea ondo markatu ote zen ziurtatzea. Arropa zikina zakuetan iristen zen Eibarrera, inguruko herrietatik, eta zaku horretan arroparen zerrenda eta albaranak ere iristen ziren. Eibarrera heldu ahala, jasotako guztia ondo zegoela ziurtatu behar zen. Margolak 17 denda izan zituen, Euskal Herrian barrena: Bergara, Plazentzia, Arrasate, Bilbo, Gasteiz, Donostia...

**24. 1963an Zeruko Argian berriemaile, 1976an Deian**

- **Erref:** EIB-075/002
- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 00:00:05. **Bukatu:** 00:04:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Kultura » Idaztea

**Laburpena:**

1963an hasi zen Zeruko Argiarentzat Eibarko berri-emaile. Lantegian ordu

asko egiten zituen orduan. 1976an, Deia sortu zenean, lana eskaini zioten eta onartu egin zuen. Aitari esan zionean, oso momentu txarra pasatu zuen.

## 25. Untzagako eskolan eta Jardinetako institutuan

- **Erref:** EIB-075/003
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:04:39. **Bukatu:** 00:07:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

### Laburpena:

Untzagan, udaletxean, ume txikien eskola zegoen, mojak maistra zituena. Corazonistetan lekurik ez, eta Jardinetako institutura joan zen, eskola nazionalera.

## 26. Bere abizenak irakasleak erdaraz, amak euskaraz

- **Erref:** EIB-075/005
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:09:28. **Bukatu:** 00:11:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

### Laburpena:

Bederatzi urterekin, Corazonistetara joan zen. Giro espainola topatu zuen baina ez frankista. Abizenak gazteleraz idazten zizkioten eskolan, baina amak euskarazkoak zela beharko lukeen esaten zion. Orduan hasi zen nabaritzen jokaera bat baino gehiago zegoela.

## 27. Euskaraz argitaratzen zen guztia etxean

- **Erref:** EIB-075/006
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:11:02. **Bukatu:** 00:13:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

### Laburpena:

Etxean politikaz entzun zuen lehen aldia, gurasoak Jose Antonio Agirreren hiletara joan zirenean izan zen. Aitak Etxezarretaren dendara bidaltzen zituen diskoak erostera eta Iraolagoitiarenera euskarazko liburuak erostera.

## 28. Aitak abertzaletasuna, amak irakurzaletasuna

- **Erref:** EIB-075/007
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:13:32. **Bukatu:** 00:15:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Aisia » Kultura » Idaztea

**Laburpena:**

Etxean arbela zeukaten eta han berbak idazten zituzten. Arantzazuko egutegiaren orria irakurtzen zuten egunero. Aitak abertzaletasuna eta amak irakurzaletasuna transmititu dizkie. Anekdotak bat kontatzen du.

**29. Aitak euskalgintzari dirua**

- **Erref:** EIB-075/008
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:15:08. **Bukatu:** 00:16:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

**Laburpena:**

Aitak dirua ematen zien ekintza edo argitalpen euskaltzaleei.

**30. Barnetegitik aitari gutunak euskaraz**

- **Erref:** EIB-075/009
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:16:19. **Bukatu:** 00:18:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

**Laburpena:**

Bilbon merkataritza-peritu ikasketak egitera joan zen baina ez zuen ezer egin. Handik barnetegira bidali zuten hamazazpi urterekin. Aitarekin gutun-trukea euskaraz egiten zuen eta amarekin erdaraz. Ez dauka gutunik gordeta.

**31. Hamabi urterekin kontzientzia abertzalea**

- **Erref:** EIB-075/011
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:20:18. **Bukatu:** 00:22:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

Gogoan du hamaika-hamabi urterekin Euskal Herriko mapa marraztu zuela. Ordurako kontzientzia abertzalea bazeukala dio. Euskaraz argitaratzen zen guztia zegoen etxean.

### 32. Euskal burgesiaren defentsa

- **Erref:** EIB-075/012
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:22:15. **Bukatu:** 00:26:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

#### Laburpena:

Aitak, jakin arren aberatsen mundua erdalduna zela eta euskaldunena baserriarekin eta atzerakoia izatearekin lotzen zela, banaketa hori ez zuela onartzen azaltzen du; euskal burgesiaren defentsa egin zuen.

### 33. Burgesia euskaltzalea eta erdalzalea

- **Erref:** EIB-075/013
- **Iraupena:** 0:04:37. **Hasi:** 00:26:05. **Bukatu:** 00:30:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

#### Laburpena:

Aitaren antzeko jokabidea eta ikuspegia (euskal burgesiaren defentsa) izan zuten batzuk aipatzen ditu. Bergarako burgesia ez zela euskaltzalea esaten du.

### 34. Lehenengo artikulua erdaraz hamabost urterekin

- **Erref:** EIB-075/017
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:36:29. **Bukatu:** 00:38:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

#### Laburpena:

Argitaratu zioten lehenengo artikulua erdaraz egin zuen, hamabost urte ingururekin. Idazteko zaletasuna betidanik izan du.

### 35. Kulturalako euskara batzordea

- **Erref:** EIB-075/018
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:38:22. **Bukatu:** 00:41:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Kulturalean hasi zenean kide zituenak izendatzen ditu. Euskara batzordea zen elkartearen euskaraz funtzionatzen zuen bakarra. Antzerki talde euskalduna sortzeko izan zituzten gorabeherak kontatzen ditu.

**36. Euskara ikasle izatetik, irakasle izatera**

- **Erref:** EIB-075/019
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:41:40. **Bukatu:** 00:43:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Idaztea

**Laburpena:**

Kulturalean idazkari lanetan aritu zen, gustuko zuelako idaztea. Imanol Lazpiurrekin euskararen gramatika ikasten hasi ziren baina berehala irakasle lanetan.

**37. Zeruko Argiako berriemaile**

- **Erref:** EIB-075/020
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:43:34. **Bukatu:** 00:46:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Idaztea

**Laburpena:**

Zeruko Argian berriemailea behar zutela eta animatu egin zen. Gero, kronikak idaztetik, informazio orokorra idazteko proposamena egin zioten eta asteburuetan joaten zen erredakziora idaztera. Han ibiltzen zen dirudun bakarra zen.

**38. "Hoja del lunes"-en euskaraz artikulua idazten**

- **Erref:** EIB-075/021
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:46:15. **Bukatu:** 00:49:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Idaztea

**Laburpena:**

"Hoja del lunes de San Sebastian" (egunkarian) artikulua idazten hasi zen, euskaraz, erdarazko laburpen batekin. Gerrarik egiteko interesik ez zuelako deitu zutela uste du.

**39. 70. hamarkadan informazioaren erreferentea**

- **Erref:** EIB-075/022
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:49:00. **Bukatu:** 00:53:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Idaztea

**Laburpena:**

Euskaraz informazioa bere hutsean eman zuen lehenengo idazlea izan zela dio. Idazle eta pentsalariak izaten ziren aldizkarietan idazten zutenak. 1972tik 1975era bitartean informazioaren erreferentea izan zela dio.

**40. Zeruko Argia eta garaiko beste aldizkari batzuk**

- **Erref:** EIB-075/023
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:53:15. **Bukatu:** 00:56:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

Anaitasuna, ideologizatuagoa, Principe de Viana eta Herria ziren orduan Zeruko Argiaren antzekoenak. Oronozen zegoela, barnetegian, erdaraz egin arren euskaldunak ziren talde bat baziren, eta inguru hartan euskaraz egiten zela ohartzen ziren. Hango sukaldariari entzun zion lehenengo aldiz 1962an Zeruko Argia irten zela.

**41. "Gazte naiz" saileko idazleak**

- **Erref:** EIB-075/024
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:56:45. **Bukatu:** 00:57:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Idaztea

**Laburpena:**

1964an idazleen belaunaldia egon zen. "Gazte naiz" sailean idazten zuten, Zeruko Argian. Batzuk aipatzen ditu.

**42. Zeruko Argian bere borondatez**

- **Erref:** EIB-075/025
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:57:46. **Bukatu:** 00:58:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Aisia » Kultura » Idaztea

**Laburpena:**

Zeruko Argiara lehenengo artikulua bere kabuz bidali zuen eta hala egin zuen hurrengo urteetan ere. Kobratu barik, dirua ipini behar izan zuen aldizkaria atera zedin.



### 43. Zeruko Argiako erredakzio taldea

- **Erref:** EIB-075/026
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:58:53. **Bukatu:** 01:00:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Idaztea

#### Laburpena:

Zeruko Argian erredakzio taldea zegoen. Izenak ematen ditu. Agintean zeudenak euskaltzaleak, moderatuak eta eliztarrak zirela dio.

### 44. Kazetari zela, politikarekin topo egin zuenekoa

- **Erref:** EIB-075/027
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:00:11. **Bukatu:** 01:01:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Aisia » Kultura » Idaztea

#### Laburpena:

ELA sindikatuak bere kongresua 1977 inguruan Eibarren antolatu zuenean, lehenengo aldiz ukatu zioten berriemaile izatea; ELAkoek jakinarazi zioten beste bat ekarri zutela kazetari lana egiteko.

### 45. "Amatiño" eta beste gaitzizenak

- **Erref:** EIB-076/001
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Aisia » Kultura » Idaztea

#### Laburpena:

"Mielotxin" gaitzizena Branka aldizkari klandestinoan erabili zuen. Zeruko Argian elkarrizketak "Koldo Olazabal" izenarekin sinatzen zituen, informazioa "Amatiño" moduan eta bestelakoak "Andikao" izenarekin.

### 46. Artikuluak idazmakinan idatzi eta errekadistarekin bidali

- **Erref:** EIB-076/002
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:02:14. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Aisia » Kultura » Idaztea

**Laburpena:**

"Olivetti" idazmakina zeukan eta kopia egiteko papera jartzen zion, idatzitakoa gordetzeko. Errekadista bati ematen zion bidal zezan. Eztabaidak izaten zituzten luzeraren kontura.

**47. Euskara batuaren arauak, 60. hamarkadan**

- **Erref:** EIB-076/003
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:03:55. **Bukatu:** 00:06:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Aisia » Kultura » Idaztea

**Laburpena:**

Euskara batuaren sorreraren bueltan hasi zen idazten. Bera idazten hasi zenerako, beraz, bazekien gutxi gorabehera arauak zein ziren. Harro dago hasieratik erabili izan duen euskararekin.

**48. Euskara batuaren inguruko eztabaidak**

- **Erref:** EIB-076/004
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:06:53. **Bukatu:** 00:08:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen historia

**Laburpena:**

Euskara batuaren inguruan sortutako eztabaidak ideologikoak izan zirela dio.

**49. Klandestinitatea bizi**

- **Erref:** EIB-076/005
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:08:08. **Bukatu:** 00:09:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Politika eta Franco

**Laburpena:**

Klandestinitatea hurretik ezagutu zuten, bai kultura eta bai politikari dagokionez. Azalpenak ematen ditu.

**50. Anaiaren ihesa, ETAn sartzeko gonbidapena eta beste**

- **Erref:** EIB-076/007
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:11:15. **Bukatu:** 00:14:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Euskal gatazka

- [Politika](#) » [Politika eta Franco](#)

**Laburpena:**

Anaiak ihes egin zuen hemezortzi urterekin, 1965ean, eta tarteka agertu egiten zen. Normaltasunez bizi zuen egoera hori. ETAn sartzeko gonbidapena jaso zuenekoan kontaktzen du. Burgosko epaiketaren harira, telegrama bidali zion Francori indultua eskatuz, beste askok bezala.

**51. Euskalgintzan aritzearren, poliziarekin izandako arazoak**

- **Erref:** EIB-076/008
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:14:58. **Bukatu:** 00:18:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- [Politika](#) » [Euskara eta politika](#)
- [Euskara](#) » [Euskararen historia](#)

**Laburpena:**

Poliziarekin behin izandako arazoa kontaktzen du: Axularren testuen kopiak kendu zizkieten. Rikardo Arregik prestatzen zituen alfabetatze klaseak emateko. Beste behin etxera etorri zitzaizkion poliziak Euskal Jaietako diru-kontuengatik.

**52. Kulturalaren eta Club Deportiboaren arteko aldea**

- **Erref:** EIB-076/011
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:23:52. **Bukatu:** 00:27:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- [Euskara](#) » [Euskararen historia](#)
- [Aisia](#) » [Kultura](#) » [Herrigintza eta elkarteak](#)

**Laburpena:**

<p>Kulturala euskaltzaleen bilgunea zen. Azaltzen du Deportiboa euskaldunagoa zela kulturala baino, baina ez kulturala baino ekintzaileagoak euskalgintzan.</p>

**53. Eibarren euskal kontzientzia piztea**

- **Erref:** EIB-076/012
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:27:14. **Bukatu:** 00:29:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- [Euskara](#) » [Euskararen historia](#)

**Laburpena:**

Kulturaleko Euskara Batzordearen helburuak aipatzen ditu; nagusiki, Eibarren euskal kontzientzia piztea. Deportiboarekiko aldeak azaltzen ditu.

## 54. Enpresariengana diru eske euskalgintzarako

- **Erref:** EIB-076/013
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:29:30. **Bukatu:** 00:32:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

### Laburpena:

Enpresariengana dirua eskatzera joaten ziren Kultureko Euskara Batzordetik. Berari osabarengana joatea tokatzen zitzaion.

## 55. Euskal jaia, antzerkiak, hitzaldiak eta jaialdiak

- **Erref:** EIB-076/014
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:32:50. **Bukatu:** 00:35:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

### Laburpena:

Euskal Jaia zen ekimen nagusia baina hari esker txistulari taldea zeukaten eta antzerki emanaldiak, hitzaldiak eta jaialdiak ere antolatzen zituzten. (Ramon) Saizarbitoria etorri zenekoa kontatzen du.

## 56. Mutikotako planak

- **Erref:** EIB-076/017
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:39:50. **Bukatu:** 00:41:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

### Laburpena:

Mutikotan, futboleko egitera Arratera joaten ziren, baita Eztiagara edo Urkira ere. Zaldibarko Sallobentera joaten ziren bainatzera. Debara bizikletaz ere joaten ziren. Mutilak bakarrik ibiltzen ziren, hamabost urte ingurura arte.

## 57. Ermuko zinemara

- **Erref:** EIB-076/018
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:41:53. **Bukatu:** 00:43:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Zinema

**Laburpena:**

Ermura zinemara joaten ziren. Filmen sailkapena azaltzen du; bost mota zeuden. Zinema non zegoen esaten du.

**58. Eibarko eskubaloi taldean**

- **Erref:** EIB-076/019
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:43:53. **Bukatu:** 00:46:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

**Laburpena:**

Oronozko barnetegian egon zenean, eskubaloian hasi zen eta Eibarrera etorritakoan, jarraitu egin zuen. Aldagelak eta dutxak non zeuden azaltzen du. Eskubaloiko taldeko gehienak kanpoan ikasitakoak ziren.

**59. Bere belaunaldiari tokatutako berritasunak**

- **Erref:** EIB-076/020
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:46:18. **Bukatu:** 00:49:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

**Laburpena:**

Bere belaunaldiari tokatu zitzaizkion berritasunak azaltzen ditu: herria egitea, modernitatea (dantzalekuak eta beste), kafetegiak... Dirua zegoen, denerako (kirolerako zein kulturarako). Gizartea mobilizatzea, demokrazia ekartzea... tokatu zitzaiera dio. Olatuaren gainean joatearen sentsazioa izan zuten. Zortekoa izan dela dio.

**60. Dena egiteko zegoen, baina aurrekoak ahaztu zituzten**

- **Erref:** EIB-076/021
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:49:26. **Bukatu:** 00:53:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

**Laburpena:**

Euskararen, politikaren zein gizarte arloan gora egiten jarraitzea zaila ikusten du. Bere garaian dena erraza izan zela dio, dena zegoelako egiteko. Horren ifrentzua azaltzen du: aurreko belaunaldikoak aintzat hartu ez izana.



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com